

Ijurko eta Ortiz, espetxearen gerizpean





10-17

AURKIBIDEA

Iritzia Ane Urkola **3**

Euskararen Eguna

Bettina Dür austriarra **4-7**

Begirada Grafikoa Ibon Odriozola **9**

Asteko Gaia Urteetako korapiloak

askatzen: Ijurko eta Ortiz **10-17**

Errezeta Aintzane Artola **18**

Iritzia Joxe Agustin Arrieta **20**

Iritzia Maider Barandiaran **21**

Bertsoa Jokin Sorozabal **22**

Agenda **23-25**

Erreportajea Bizilagunen inguruko

aurreiritziak ezabatzeko zita **26-29**



4-7



18



Azaleko irudia

Jon Miranda Labaien

ataria

URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83€

ATARIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

bai erabiltzen eta
lana egiten

Bikam

ARGITARATZAILEA: Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM **LEGE GORDAILUA:** SS-1323-2013 **TELEFONOA:** 943 65 56 95
KOORDINATZAILEA: Rebeka Calvo Gonzalez **KUDEATZAILEA:** Iban Urdapilleta Alkizalete **BEZERO ARRETA:** 943 30 43 46
WEBGUNEA: ataria.eus **POSTA ELEKTRONIKOA:** ataria@ataria.eus **IRRATIA:** 943 69 80 38 • 687 410 033 • 107.6 FM
PUBLIZITATEA: 661 678 818 • publi@ataria.eus

Tolosaldeko Komunikazio Taldea, SM:



Tolosaldeko gizarte eragileak

TOLOSALDEKO ATARIA diruz laguntzen duten erakundeak:

Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Alegia, Alkiza, Albiztur, Altzo, Amasa-Villabona, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa eta Zizurkil.



**Gipuzkoako
Foru Aldundia**

Kulturarik gabe ez gara



ANE URKOLA
AGIRREZABALA
KAZETARIA

Hedabide honetan azken iritzi artikulua idatzi nuenetik pasa dira bi hilabete. Bi hilabete hauetan aldaketa ugari eman dira, eta pixkanaka-pixkanaka aurreko «normaltasunera» bueltatzeko urratsak eman ditugu. LABI desagertu da, eta gobernuek koronabirusak eragindako pandemiari aurre egiteko hartu dituzten neurri murritzaille gehienak ere bertan behera gelditu dira.

Hortik egun gutxitara ospatu genuen Euskal Jaia Anoetan. Egun osoko festa izan genuen euskal nazio-tasuna, kultura eta ingurumena aldarrikatzeko. Pozgarria izen zen herrian goiz-goizetik sortu zen giroa ikustea: bai ekoizleek, herritarrek zein bisitariak go-goiz hartu genuen eguna, eta ederra izan zen pasa den urtean ikusi gabeko ekoizleen irribarreak ikustea, gertu sentitzea, beren berri izatea.

Polita izan zen arratsaldean plaza bete herritar ikustea ere, aspaldi bere txokotik mugitu gabeko txosnaren ertzean trago bat hartzea, eskuak elkarlotu eta Herria (sinbolikoki noski) elkarrekin dantzan ikustea.

Pandemia garaian edozein ekitaldi edo ekimen antolatzen aritu denak badaki zein buruhauste eragin duen legeak zioena betetzeak. Ez hori bakarrik; hainbat eta hainbat gizarte eragileek, elkarrekin, gaztetxeek... beren jarduna murriztu edo gelditu behar izan dute, eta horrek *stand by*-ean utzi ditu kultur ekitaldi asko eta asko, eta ondorioz, baita hainbat sortzaileren jarduna eta bizitza bera ere.

Euskal Herriak kulturgune txikiz osatutako sare ederra du, izan areto txiki, gunee autogestionatu edo gaztetxe, euskal kulturari eta kulturgileei arnasa ematen dietenak. Hainbat hilabetez gunee horietako agertokiak hutsik izan dira, bertako argiak itzalita, behar-

tutako isiltasun baten menpe, eta horietako batzuk baita indarrez hutsaraziak eta eraitsiak ere. Euskarentzat, euskal kulturarentzat eta euskaldunentzat ezinbesteko plaza diren hainbat ekitaldi ere bertan gelditu behar izan zuten pandemiaren ondorioz, baina pixkanaka-pixkanaka martxan dira; Lapurdi, Behe Nafarroa eta Zuberoako, Bizkaiko eta Nafarroako Bertsolari txapelketen garaia da, eta dagoeneko iragarri

**Baionan, Bilbon edo Iruñean,
jarrai dezagun elkartzen,
komunitatea eraikitzen,
konspiratzen, dantzatzen,
oihukatzen, abesten, eta
mundua aldatzen jarraitzen.
[...] baita Anoetan,
Itsasun eta Iturenen ere.**

dute datorren urtean ospatuko dela Euskal Herrikoa. Segituan izango da Durangoko Azoka ere, eta ondoren etorriko dira neguko solstizioa jaiak, inauteriak... eta beste asko.

Behin entzun nion bati komunitatea elkartzen duten ekintzak oso garrantzitsuak direla komunitate baten biziraupenerako. Baionan, Bilbon edo Iruñean, jarrai dezagun elkartzen, komunitatea eraikitzen, konspiratzen, dantzatzen, oiuhukatzen, abesten, eta mundua aldatzen jarraitzen. Maialen Lujanbiok behin abestu zuen bezala, euskaratik eta euskaraz. Baina ez Baionan, Bilbon eta Iruñean bakarrik, baita Anoetan, Itsasun eta Iturenen ere.



«Hemen bizi banaiz ezinbestekoa da euskara jakitea»

BETTINA DÜR
EUSKALDUN BERRIA

Eneritz Maiz Etxarri

Hasiera batean, lan eskaintza bat tarteko, bi urterako baino ez zen etorri Tolosaldera Bettina Dür austriarra (Snakt Margarethen, Austria, 1983). Altzon aurkitu du, ordea, Austriaren pareko herria eta bertan osatu du familia. Euskara ikasteko ahalegin handia egiten ari da, eta garbi du egunen batean euskara ondo hitz egingo duela.

Noiz etorri zinen lehenengo aldiz Euskal Herrira?

Orain dela hamar urte. Lana suertatu zitzaidan hemen, eta lanegatik etorri nintzen. Hasiera batean bi urterako izan behar zuen, baina lker [Otamendi] eza-gutu nuen, eta hemen nago.

Iritsi aurretik bazenuen Euskal Herriaren berririk?

Ez. Austrian ez digute ezer kontatzen, eta ni Espainiara nentorren. Euskal Herriaz entzuna nuen, baina ez nekien benetan zer zen.

Eta euskararen berririk bazenuen?

Jakin bai, baina, dialekto bat dela pentsatzen duzu. Hizkuntza zela ez nuen uste, eta ezta bere kultura eta atzean duen pisu guzti hau zuenik ere.

Ingelesa jakinda iristen zara hona.

Bai. Ingelesarekin iritsi nintzen. Lehenengo asteburu batean etorri nintzen bisita egitera lekua ezagutzeko, eta lana onartu edo ez erabakitzeko. Hiru hilabe-

te geroago bi urterako etorri nintzen. Pisua bilatu bi-tartean, lehenengo hilabeteen Tolosako Hotel Orian bizitu nintzen.

Eta noiz entzun zenuen lehenengo aldiz euskara?

Bulegoan. Hasieran asko kostatzen zitzaidan gaztelania eta euskara ezberdintzea. Nik ez nituen ez bat eta ez bestea hitz egiten, eta hasieran niretzat dena bat zen. Gero, ordea, segituan ohitzen zara, eta biak bereizten dituzu.

Hona iritsi eta berehala hasten zara ikasten?

Bai, gaztelania bai. Bulegoan abantaila nuen mundu guztiak ingelesa hitz egiten duelako, baina gero pisu bat aurkitu behar duzu, bankuko kontu korrante bat behar duzu, mugikor bat kontratatu nahi duzu,... eta guzti horretarako ingelesarekin ez zoaz inora. Guzti horretarako laguntza behar nuen. Ez zen posible, eta ikastaro bat aurkitu nuen eta gaztelania ikasten hasi nintzen.

Eta euskara?

Ikerrekin. Hasiera batean bi urterako nentorren, eta ez du zentzu handirik euskara ikasteak. Hain denbora gutxian ez duzu denborarik eta bizitzak ez dizu ematen. Denbora luzerako izango zela ikusi nuenean bai; orain oso garrantzitsua iruditzen zait euskara ikastea eta jakitea. Orain hemen bizi naiz, eta nire gunea hemen dago.

Eta euskara ikasten hasten zara.

Bai, pixkana-pixkana euskaltegian hasi nintzen, eta alaba zaharrenak jada sei urte egingo ditu, eta hartu eta utzi ibili naiz. Nekatuta ere banengoen. Hizkuntza bat ikasi berri duzu, eta hizkuntzen nekea hor dago. Ez nengoen fresko beste hizkuntza bat ikasteko. Nik uste dut gaztelania nire ama hizkuntza izango balitz, euskara ikastea ezberdina izango litzatekeela. Euskaltegian hiru urte egin ditut, baina eguneror ez nintzen joaten, eta autoikaskuntza asko egin

dut. Etxeko lan asko egin dut. Bi urte daramatzat euskaltegira joan gabe, eta Karmenekin [Murua] mintzapraktika egiten dut. Eta hori da garrantzitsuenari: hitz egitea.

Non barneratzen duzu euskara gehien?

Eskolako patioan umeekin. Hori izan da nire iturria. Hemengo umeek azkenean euskara bakarrik hitz egiten dute, eta umeekin oso ondo moldatzen naiz.

Mintzapraktikarekin jarraitzeko asmoa duzu?

Bai. Oraindik ez dugu berrartu, baina hori da intentzioa. Astean egun bat izaten da, eta normalean paseo bat ematen dugu.

Horrek asko lagundu dizu?

Bai. Karmenekin baino ez dut euskaraz hitz egiten, edo patioan umeekin. Ikerrekin oraindik ez dut eman pausoa. Eta bakarka hitz egiten dut. Talde bateko dinamika oso zaila da.

Poliki-poliki ari zara.

Mintzapraktikak asko lagundu dit. Gauza bat eta bestea dela, euskaltegian ikasi nuen apurra ez galtzeko asko balio dit. Eta esan bezala gaztelania ere ez dut ama hizkuntza, eta garrantzitsua da ondo ahoskatzea; horrek irekitzen eta pausoa ematen lagunduko liguke euskara ikasten ari garenoi. Karmenek ahalegin handia egiten du nik uler dezadan, bestela elkarriketetan galdu egiten naiz. Eta niri gauzak ondo egitea gustatzen zait, eta baldin badakit ez dudala ondo egingo uzteko arriskua dut. Jende batek badaki ulertzen dudala, eta euskaraz egiten didate, baina gaiaren edo egoeraren arabera batzuetan hizkuntza aldatzeko eskatu behar izaten dut, galdu egiten naiz. Eguneroko dinamikan oso azkar hitz egiten da.

Zure hiru seme-alabekin ere ez duzu erabiltzen?

Alemanez hitz egiten dut nire umeekin. Eta euskaraz egiten badiet ere, alemanez erantzuten didate.

IRAGARKI LABURRAK

SALGAI. Txerriak. Apotea, zerramak eta sei hilabete inguruko txerrikumeak. Interesatuak deitu 607 668 603 (Joxe Kruz) telefono zenbakira.

SALGAI. Telebista. Estreinatutako gabeko telebista saltzen dugu. Samsung 6 markakoa da eta 30 hazbete ditu. UE32P4305 AK erreferentzia du. Prezioa: 120 euro. Interes-

dunek deitu ondorengo telefono zenbakira: 657 73 28 06.

Zure iragarki laburra argitaratzeko deitu **943 65 56 95** zenbakira, idatzi **ataria@ataria.eus** helbidera edo pasa ATARIA-ko bulegotik. Iragarki guztiak: **iragarkilaburrak.eus**-en.

Eskualde euskalduna eta herri txiki euskaldun batean bizi zara. Nolakoa da esperientzia?

Ona. Austrian ere herri txiki batekoa naiz, eta esperientzia antzekoa da. Jende guztiak ezagutzen du jende guztia, eta horrek bere alde onak eta txarrak ditu, eta ohituta nago. Hiri handietan bizi izan naiz, baina orain hurrekin herri txiki batean bizitzea hobe dela pentsatzen dut.

Altzon denek jakingo dute Austriakoa zarela.

Bai, etortzerako badut bitxikeria bat. Fermin Murua baserritarrak bere baserrian trukea egin izan du eta austriarrak etortzen ziren uda pasatzera. Herri hau ohituta dago austriarrekin eta esperientzia ona izan dute. Oso ondo hartu naute. Eta nik ez nekien Fermin nor zen ere, eta austriaraz kasu egin zidan. Erabat harrituta geratu nintzen, eta nire herria ezagutzen zuela esanez gerturatu zitzaidan. Kasualitatez, nire herriko mutil bat egona da Altzon.

Zein onura eman dizu euskara jakiteak?

Euskara jakin gabe ere inork ez nau gaizki begiratzten. Euskaraz pixka bat hitz egite hutsagatik zerbait oso ona egingo banu bezala tratatzen zaituzte. Ez dakit harritu den hitza, baina euskara ikastea inork ez du ematen egintzat. Ahalegina egiten ari naizelako oso eskertua sentitzen naiz, asko baloratzen du jendeak eta hori gustatzen zait. Baina nik bai ikusten dut beharrezko euskara ikastea. Hemen bizi banaiz, nire seme-alaben hizkuntza da, euskaldunak dira eta hemengoak dira, beraz, ezinbestekoa

da euskara jakitea. Eta nire seme-alabentzat ere uste dut garrantzitsua dela beraien amak euskara jakitea.

Ikasten jarraitzea da zure helburua.

Bai. Umeak jada hazten doaz, eta pentsatu nahi dut denbora gehiago izango dudala niretzako, eta denbora horren zati bat euskara ikasten inbertitze-ko asmoa dut. Egunen batean ondo hitz egingo dut.

Euskara zaila dela esaten da. Zer diozu?

Esan dezaket gaztelania baino askoz ere zailagoa dela. Hain da bakana, ezin duzu beste inongo hizkuntzarekin loturarik egin.

Eta nola daramazu euskalkien kontua?

Nahiko ondo. Gipuzkoan nahikoa batua hitz egiten da. Esaterako, Bizkaia edo izango balitz, beste zailtasun bat gehituko litzateke. Entzutea baino zailagoa askotan mezuak irakurtzea egiten zait. Lagun arteko *WhatsApp* mezuetan hitz bakar batean hiru hitz sartzen dituzue [kar kar kar].

Esaterako, eskolako bilerak eta normalean ondo jarraitzen ditut. Ez badut ulertzen galdetu egiten dut, eta gaztelaniaz azaltzen didate. Baina justu hori da nik nahi ez dudana, guraso talde batean niregatik hizkuntza aldatu behar izatea. Ez dut nahi, eta ez zait ondo iruditzen. Horregatik nahia-
go dut nik ikasteko eta entzuteko ahalegina egitea. Hala ere, oso esperientzia ona dut irakaslee-
kin ere.

ATARIAN jarrita Goierrri
eta Urola Kostako
Hitz egunkarietan doan

hilberriak • urteurrenak • eskertzak

Txikia: 110€ • Atarikideentzat: 55€
Handia: 160€ • Atarikideentzat: 80€
Eskertza: 60€ • Atarikideentzat: 30€

Eskelak • ataria@ataria.eus • Tel: 943 65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu. Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu.



**GARIKOITZ
GOIKOETXEA**
UEMAKO EUSKARA
TEKNIKARIA

Osasuna: datuak eta korapiloak

Nahikoa da eskualdeko edozein osasun etxetatik pasatzea ikusteko hamarkada hauetan zenbat egin duen aurrera euskarak: bai ahozko zerbitzuan, bai langileen artean, bai hizkuntza paisaia. Osasuneko da herritarrek gehien erabiltzen duten zerbitzu publikoetako bat, eta hizkuntza ezinbesteko osagaia du: pazientearen ongizatea baldintzatzen duelako, kalitatearen oinarrietako bat delako, herritarren eskubidea delako.

Eskualdeko osasun zerbitzu publikoko langile gehienak gai dira zerbitzua euskaraz emateko —gaztelaniaz, denak—. UEMAk aurten egin du osasun profesionalek egiaztatutako hizkuntza gaitasunari buruzko azterketa: eskualdean 155 lanpostu dira; 153k zehaztua dute hizkuntza eskakizuna (%99); eskakizuna betetzea derrigorra da 144 postutan (%93); eta 118 lanpostutan daude eskakizuna lortua duten langileak (%76). Bestela esanda: lau postutik batean ari dira dagokien eskakizuna egiaztatzen gabeko langileak. Hutsune nagusiak pediatria eta arreta espezializatuan daude; egoera onena, familia medikuetan.

Orain dela lau urtetik, herritar guztiek aukera daukate Osakidetza-ri esateko zein hizkuntza ofizial-letan jaso nahi duten zerbitzua. Osasun zentrorra joatean galdetu ohi dute, historia klinikoa jasota uzteko. Eskualdeko herritarren

%78k hautatuta daukate hizkuntza: haietatik %62k euskarazko zerbitzua eskatu dute, eta %38k, gaztelaniazkoa. Eskualdeko datu soziolinguistikoak ikusita, badago zenbaki horiek hobetzeko aukera, nahiz eta zailtasun batzuk ere badiren —adibidez, medikuarekin beti erdaraz aritzera ohitu izana—. Euskararen Eguna badatorren honetan, ez da ariketa txarra: eskatu euskarazko zerbitzua Osakidetza-ri. Haren ardurara da zerbitzua euskaraz ematea.

Osakidetza-ri dagozkio datu horiek denak. Eskualdean, ordea, Asuncion klinikak ematen du osasun zerbitzu publikoaren zati bat. UEMAk bi aldiz eskatu dizkio klinikari langileen hizkuntza gaitasunari buruzko datuak, baina isiltasuna izan da erantzuna. Eguneroko jarduna ikusita, jakina da eskualdeko osasun etxeak baino atzerago dagoela Asuncion. Iragarpenak betetzen badira, ospitale publikoa izango du eskualdeak gutxi barru. Korapilo asko

dago argitzeko: zer zerbitzu emango dituen, Asuncionek emango ote duen zerbitzu publikorik, zer gertatuko den urteetan Asuncionen zerbitzu publikoa ematen aritu diren langileekin... Korapilo horietan txertatu behar da hizkuntzaren aldagaia ere: ikusita ospitale publikoak zein eskualderi emango dion zerbitzu, derrigorrezkoa da langileria euskalduna izatea.

Lau postutik batean ari dira dagokien eskakizuna egiaztatu gabeko langileak. Hutsune nagusiak pediatria eta arreta espezializatuan daude.

«Pazienteekin harremana beharrezkoa da»



Emerson Murua Pérez (Buenos Aires, Argentina, 1975) obstetrizia eta ginekologian mediku espezialista da. Bizkarrean 25 urteko profesionaltasuna du eta 2013az geroztik Zuatzu klinikan lanean dihardu. Zuatzu klinikan emakumeari zuzendutako espezialitate guztiak jorratzen dira, era berezian ginekologia, obstetrizia eta jaio aurreko diagnostikoa. Orain artean Tolosaldeko pazienteak beste zentroetara lekualdatu badira ere, orain gertuko zerbitzua etxetik gertuago izango dute, Zuatzu klinikak bere ateak ireki baititu Tolosan.

Zertan datza zure lana Zuatzu klinikan?

Jarraipen integrala da. Nire lana jaio aurreko diagnostikora dago bideratuta; nire alorra haurdunaldiak eta erditzeak dira, baina baita jarraipen ginekologiko orokorrak ere.

Zein da paziente potentziala?

Urte luzez ezagutzen ditudan pazienteak badituz; umeak gurean izan dituztenak eta jada ume hauek nerabeak direnak; edota, bizitza guztian gurekin tratatu direnak eta orain euren ugalketa-bizitzaren amaieran daudenak eta ginekologia kontrol ohikoe-tara datozenak; edota gurekin haurdunaldia lortu nahi dutenak eta gizarte segurantzak eskaintzen dien jarraipena Zuatzun osatu nahi dutenak.

Adibidez, gizarte segurantzak 12, 20 eta 34 asteko

ekografiak egingo dizkio haurdun dagoen emakume-ari, baina gure ustez hau urri geratzen da. Are gehiago, pandemia garaian, gizarte segurantzaz haurdun zeuden emakume horien bikoteek ez dute aukerarik izan ekografia horietan egoteko. Guk aukera eman diegu.

Nola eragin dizue pandemiak?

COVID-19a hasi zenean, guztiontzat zerbait berria zen, paziente ez ziren emakumeen dei pila bat jasotzen hasi ginen. Haurdun zeuden emakumeak ziren eta zalantzez josita zeuden: 'Haurdunaldiarekin jarraitu behar dut baina Osakidetzan ez didate zitarik ematen, telefono bidezko jarraipena baino ez didate egiten'. Emakume hauei jarraipen integrala eskaini genien.

Zergatik jo Zuatzu klinikara?

Publikoan emaginak egiten du jarraipena batik bat, eta ginekologoarekin hiru zita daude guztira. Guk artatzen ditugun emakumeak dudaz josirik datoz eta euren zalantza guztiak argitzen saiatzen gara. Ez da eskaintzen zaien denbora bakarrik, pertsonalizazioa dago atzean. Paziente batek atea zeharkatzen duenean bere historia kliniko guztia ezagutzen dut jada. Emakume hauekin dugun *feedbacka* berezia da; pertsonen arteko harremana beharrezkoa da.

Zergatik Tolosan klinika irekitzearen pausoa?

Gertutasunagatik. Gure paziente asko Tolosaldekoak dira. Zuatzu klinikak bere oinarria Donostian du baina herrialde osora gerturatzen saiatzen gara; Arrasate, Eibar, Irun eta Beasaingo zentroei gehitu zaie Tolosakoa. Diziiplina anitzeko taldea izanik, patologia guztiak betetzen ditugu.

Elkarrizketa osorik QR kodearekin.




ZUATZU KLINIKA

Clinicazuatzu.com

943 50 60 90.

Laskoain kalea, 16. Tolosa.





Ibon Odriozola
COLLAGE



Maite Ortiz Garcia eta Gotzone Ijurko Esnaola Tolosako San Esteban auzoan. J. M.

ESPETXEA ETA ZAINTZA

Urteetan barrenean korapilatuta izan dituzten bizipenak askatzeko gonbidapena egin die TOLOSALDEKO ATARIAK Maite Ortiz Garciari eta Gotzone Ijurko Esnaolari. Bigarren lerroan, sostenguan eta zaintzan jardun duten bi emakumeren ahotsak hartu dute erdigunea. Errelatoa aberastera datoz.

Jon Miranda

Musikak barrenak mugiarazten dizkie Maite Ortiz Garciari eta Gotzone Ijurko Esnaolari. Biek aitortu dute, esate baterako, Mikel Laboaren doinuak entzunez malko asko isuri izan dituztela, euren senideak kartzelan bisitatzetik bueltan. Orduko hartan isilean gordeta-koak ahoz gora konpartitzeko eskatu eta bata besteari hitza hartuz osatu dute kontakizuna.

KARTZELAZ

Maite Ortiz. 1986an atxilotu eta espetxeratu ninduten Carabanchelen. Nire bikotekideak, Pello Zelarainek, ihes egin zuen eta gure seme-alabek amonarekin geratu behar izan zuten. Umeak bakarrik uztea oso-oso gogorra izan zen. 13-14 urte izango zituzten, eta berez adin zaila izaten bada, pentsa ezazu egoera horretan! Bakarrik uzten dituzu eta ez dakizu nola mol-datuko diren amonarekin eta nola onartuko duten egoera hori. Abandonatuta sentituko ote zirenaren beldurra nuen.

Gotzone Ijurko. Askotan denboraren nozioa ere galdu egiten dut eta sinestezina egiten zait hainbeste urte pasa izana. 1968an nire bikotekidea atxilotu zuten lehengo aldi hartatik zurrunbilo honetan sartuta nago-ela iruditzen zait. Kartzela eta bere bueltako guztia izan dela nire bizitza. Ezkondu eta bost egunera eramane zuten senarra.

Ortiz. Zeinek esan ordutik hainbeste gauza pasa direnik. Nik, dena den, gauza asko atzenduta dauzkat. Ez dizkiot gaiari buelta asko ematen.

Ijurko. Niri, berriz, irudi horiek askotan etortzen zaizkit burura. Senarra espetxean eduki zuten lehenengo aldi hartan Jaenen izan zuten. Seat 600 batekin ibiltzen nintzen atzera eta aurrera. Txaramatik irten gabea nintzen sekula eta Jaeneraino joaten nintzen bisitan, ni txofer. Askotan bidea negarrez egiten nuen. Madrilera iritsi eta galduta ibiltzen nintzen; hiritik ateratzeko, taxilari bati galdetu behar izaten nion bidea erakutsi ziezadan. Horrelaxe ibiltzen ginen.

Ortiz. Guk saltoki bat geneukan Villabonan eta horregatik larunbatak aprobetxatu behar izaten nituen bisitak egiteko. Bakar-bakarrik joaten nintzen Frantziara, frantsesez tutik jakin gabe.

Tentsio handiarekin bizi izaten nuen bidaia. Nik gainera kolon narritakorra daukat eta komunera maiz joan behar izaten dut. Orain pentsatzen jartzen naiz eta esaten diot neure buruari: «Nola joaten nintzen ni haraino?». Ateratzen dudana konklusioa da, joan behar zen tokira joaten nintzela

«Indar handi
batek bultzatzen
ninduen, bestela
ez da posible
kemena biltzea»

MAITE ORTIZ

eta beste guztiak berdin ziola. Barruan sentitzen genuen indar handi batek bultzatzen ninduen, bestela ez da posible hainbeste gauzei aurre egiteko kemena biltzea. Mexikon deportatuta 11 urte pasatu zituen nire senarrak eta 15 kartzelan. Mexikon zegoela umeak hemen utzi eta harekin hilabete bat pasatzera joaten nintzen. Alaba uzten nuen dendaren kargu. Erantzukizun handia izan du gaztetatik alabak. Tokatzen ez zitzaizkion ardurak hartu behar izan zituen egoera horrelakoxea zelako.

Ijurko. Asko pasa dugu guk eta baita gure seme-alabek. Ni zortzi egunetan ezer gabe geratu nintzen. Gure etxea prezintatuta, semea ere etxe gabe, senarra beste aldean eta alaba sasia. Gero semea atxilotu zuten. Kalean geratu nintzen bakar-bakarrik.

Ortiz. Gogorra da bai. Seme-alaben klandestinitatea eramaten oso zaila da. Atxilotzen duten unean sentitzen duzun lasaitua esplikatzea ez da erraza. Gutxienez badakizu non dagoen, gainetik zama bat kenduko bazenu bezala da.

Ijurko. Ni Parisen martxa batean nengoen. Gogoan daukat jende asko inguratu zitzaidala Maite atxilotu zutela esateko. Nik halako hasperen bat egin nuen. Jendeak pentsatuko zuen jota nengoela, baina gutxienez banekien alaba non neukan. Lasaitasuna sentitu nuen.

Ortiz. Kartzelak gauza txar asko ditu, baina den-dena ere ez da txarra. Nik espetxean eman nituen hilabetez oroitzapen onak gordetzen ditut. Kideen arteko elkartasuna dut bereziki gogoan eta momentu onak ere bai. Horrelakoei eskerrak irauten du presoak barruan.

Ijurko. Nik, berriz, askotan faltan botatzen ditut seme-alabak kartzela barruan zeudeneko besarkada haiek. Guk daukagun guztia eman diegu barruan egon diren bitartean baina haiek ere itzuli digute maitasuna.

Ortiz. Barruan daudenean ama izaten dute kanpoarekiko konexioa. Behar duten guztia ematen diegu eta buel-

tan ere musuak eta besarkadak jasotzen ditugu. Hori oso polita da. Nik, Oskarrek in ikusten dut orain. Ia hogeit urte daramatza preso eta oso harreman berezia dugu elkarrekin.

Ijurko. Nire familia osoa atxilotu eta desagertu zenean oso gaizki geratu nintzen, egoerari eutsi ahal izateko botiken beharra izaten nuen eta egoera hartatik semeak salbatu ninduen neurri batean. Kartzelan sartu zutenean eta lehen bisean bisekoa edukitzeko aukera eman ziotenean, nirekin egotea eskatu zuen. «Ama, ez etorri gehiago», esan zidan Ibonek, negarrez. «Aita falta dut, arreba ere bai eta begira nola zauden zu; ez zaitut horrela ikusi nahi». Semearen hitzek aurrera ateratzeko adorea eman zidaten eta buelta eman nion egoerari. Gauza asko partekatu ditugu gure seme-alabekin eta hori, neurri batean, bizi izan dugun egoeragatik izan da. Bere gordinen ederra izan da.

ERREPRESIOAZ

GOTZONE IJURKO. Errepresioaren beldur hori izan da niretzat okerrera urte guztietan. Baionatik Txaramara nentorrela Andoain parean Guardia Zibilak geratu nindutenekoa dut gogoan, adibidez. A ze beldurra! Ez dut sekula ahaztuko. Bakarrik nentorren.

Ortiz. Bai, egoera horiek dira okerrenak, etxera sartzen zaizkizunean armaz leporaino. Dena hankaz gora uzten dizute. Ni 1986an atxilotu nindutenean torturatu egin ninduten. Dagoeneko ez dut presente. Nahiago dut ez pentsatu. Gertatutakoa atzean uzteko zortea izan dudala uste dut. Beste buruhauste batzuk izan ditut eta ez naiz torturen kontuarekin zentratuta egon. Pentsatzen dut bizirauteko nire mekanismoa izan dela hori. Oso aldi bakanetan etortzen zait gogora.

Ijurko. Niri ez zait buruan sartzen torturarena. Nire etsairik handiena ere ez nuke behin ere torturatuko. Nolakoa behar du izan pertsona batek hori egiteko? Askotan pentsatzen dut horrelako tratua emateko gai denak, bere seme-alabak eta bikoteak ere torturatuko zituela. Bestela ez da posible.

Ortiz. Niri poltsa jartzen zidaten eta umiliatu egin ninduten emakume bezala. Komandoetatik pasatu



Gotzone Ijurko Esnaola

Txarama, 1948. Mustad enpresan eta Txaramako paper fabrikako langile izandakoa, Ibarako ikastolako garbitzaile jardun du azkeneko urteetan erretiroa hartu duen arte. Herri Gaztedin eta ORT alderdian abiatu zuen militantzia eta gaur egun bizilekua duen Gazteluko zinegotzia da egun. Bikotea eta seme-alabak izan ditu preso garai ezberdinetan. Gaur egun, Tolosako Asanblada Feministan dabil.

diren guztien puta ote nintzen galdetzen zidaten. Min ematen dute horrelako irainek.

Ijurko. Semea atxilotu zutenean ere mehatxu horiek egiten zioten arrebarekin. Guardia Zibilen ilobak izango zituela esaten zioten, Maite bortxatuko zutela iradokiz. Haien gerrarako erabiltzen gaituzte emakumeak.

Ortiz. Bada esaera bat esaten duena ezin dela gerrarik irabazi emakumerik gabe. Askotan etortzen zait burura eta egokia iruditzen zait. Lehen lerroan ez bada ere, sostengu lan horregatik ez balitz, nekez atera daiteke borroka aurrera. Nik sentitzen dut bizitzan baliozko zerbait egin dudala. Egia da gauza asko pasatzea tokatu zaigula eta aukera eman izan baligute, nik behintzat, ez nukeela hori aukeratuko. Baina gero, etorri zaigun horri erantzuten jakin dugula sentitzen dut; adoretz egin diogula aurre egoerari.

Ijurko. Oso militanteak izan garela uste dut. Nire kasuan, Jokin, Maite eta Ibon pasa dira kartzelatik, bai-



Maite Ortiz Garcia

Amasa-Villabona, 1951. Gazterik hasi zen militantzian eta polizia operazio batean atxilotu zuten 1986an. Zortzi hilabete eman zituen preso Carabanchelen. Villabonako Kale Nagusian janari denda batean egin du lan, duela zazpi urte erretiroa hartu zuen arte. Bere bikoteak 11 urte eman zituen deportatuta Mexikon eta 15 kartzelan. Oskar semeak ia 20 urte daramatza preso. Lurgatz taldeko kidea da.

na nire lana ere ezinbestekoa izan dela pentsatzen dut. Ni harro nago egin dudana bidez. Bigarren, hirugarren edo laugarren lerroan, baina borroka baten parte izan gara. Euskal Herrian hainbeste gauza lortu badira eta aurrera egin badugu izan da, guk bezalaxe, beste jende askok egin duelako ekarpena, bigarren, hirugarren edo laugarren lerro horretatik.

Ortiz. Borroka egiteak salbatu gaitu.

Ijurko. Bestalde, gertatu zaizkigun gauza onak ere oso modu intentsuan bizi izan ditugu. Guretzako, adibidez, biloben jaiotza gauza handia izan da. Nik nire artean pentsatzen nuen: «Tokatu zaidan familia honekin, akabo, bilobarik ez dut sekula izango». Ez nuen pentsatzen etorriko zirenik eta orain bi bilobekin zoratuta nabil.

Ortiz. Nik lau biloba dauzkat. Bizipoz handia dira aitona-amonontzat.

Ijurko.. Bilobak eta inguruan izan dugun jende zoragarri hori dena.

ELKARTASUNAZ

Ortiz. Haiek gabe ezin izango ginatkeen aurrera atera. Oso eskertuta nago, behin ere ez garelako bakarrik sentitu. Laguntza hori gabe ezin izango ginatkeen aurrera atera. Izan ere, gauza asko dira kontuan hartu beharrekoak. Besteak beste zenbateko gastua suposatu digun senideoi dispersioak. Odo-luste bat izan da. Eskerrak jendeak asko lagundu digun.

Ijurko. Nik esan beharra daukat laguntza jaso dudala. Denda batera joan eta alaba kartzelan nuela esaten banien, merkeago kobratzen zidaten edo eskatutakoa baino gehiago ematen zidaten. Baten batek esango du lotsagabea naizela, baina nik ez dut behin ere ezkutatu egoera. Iruditzen zitzaidan jendeari kontatuta, ikusgaitasuna lortzen genuela.

Ortiz. Ezagutzen nauten dendetan ere niri harrera ona egin didate eta babesuta sentitu izan naiz. Ez gaituzte baztertu izan. Nahiz eta gure pentsamolde berdinekoak izan ez, beti tratu ona eman digute herrian. Bakarren batek kasu egiteari utziko zion, baina oso gutxi izan dira jarrera hori hartu dutenak. Sentsibiltate gutxiko jendea bazter guztietan dago eta kontzientziaduna ere bai. Alde guztietan.

Ijurko. Inguruan izan dugun laguntza eta babesagatik atera gara aurrera. Gu ez gara aparteko ezer izan. Jende asko sentitu dut inguruan. Gure jendea eta gurea ez dena ere bai. Horri eskerrak egin du aurrera Euskal Herriak. Elkartasunagatik.

Ortiz. Familia handi bat osatu dugula iruditzen zait.

Ijurko. Tristeia da esatea baina kartzelagatik lagunartea irabazi genuen. Mirentxinen bitartez ezagutu dugun jende zoragarria, adibidez. Frantziara joan behar izan genuen urteetan Etxeratek autobusak antolatzen zituen eta guretzako lasaitasun handia izaten zen. Babesuta sentitzen ginen. Bagenekien nondik nora ibili eta elkarrekin ikasten genuen bidea. Gero atzetik zetozenei erakusten genien.

Ortiz. Egindako borroka guztiak merezi izan duela iruditzen zait. Ni ere harro nago. Askok pasa dugu baina betetasuna sentitzen dut.

Ijurko. Eta gero, izan ditugun seme-alabak... Nolako-

ak diren ikusteak harrotasunez betetzen gaitu.

Ortiz. Bai, transmisio lan hori egin dugula iruditzen zait. Ni kartzelan nengoen bitartean saiatzen nintzen seme-alabei esplikatzeko zergatik nengoen ni kartzelan eta aita ihes eginda. Zergatia esplikatzeko nien, gaizki sentitu ez zitezen. Uste dut balio izan ziela.

Ijurko. Gu biok, eta Euskal Herriko beste emakume asko, borroka baten transmitzaile izan gara. Ikusi besterik ez dago: kartzeletako atarietan, gehienbat, emakumeak egoten gara.

Ortiz. Karga hori guk eraman dugula esango nuke. Amek, arrebek, alabek, neska-lagunek... emakumeak eraman du zama, dudarik gabe. Gu izan gara paketeak prestatu, bisitak antolatu, deiak egin eta guztia kudeatzeaz arduratu garenak.

Ijurko. Uste dut hori guztia egin dugula borroka honetan parte aktiboa sentitu garelako. Bestela ez genuke egingo. Bestela haizea hartzera bidaliko genituzke denak. Zeren une batean, ni behintzat sentitu nintzen abandonatuta. «Hauek hartu dute erabakia, niri ezer esan gabe eta orain hemen utzi naute bakarrik». Nire senideekin haserre ere egon nintzen, eta Jokini, bereziki, asko sufriarazi nion. Nik badakit berak borroka oso presente duela, eta bere bizitzako egun guzti-guztiak emango dituela herri honen alde. Baina hortik ni bakarrik uztera... «Hau azala dutena hauek», pentsatzen nuen nire baitan. «Ni bakarrik utzi naute eta orain nola atera behar dut nik aurrera?». Denak desagertu zirenean oso gaizki pasa nuen. Barruan izugarritzako amorrazioa nuen eta Jokinekin ordaintzen nuen. Errudun bat behar nuen eta bera bakarrik nuen eskura.

Ortiz. Gauza horiek pasatzen dira. Beroaldian esaten dira eta egoeraren estutasunak berak bultzatuta. Baina ze kristo, horietan izan dira gure bizipenak eta sentimenduak. Testuinguru horretan ez zitzaigun sentitzen genuen hori adierazteko aukerarik ematen eta guk geure burua zentsuratu egiten genuen, ez ginen horrelakoak esatera ausartzen gaizki hartuko zirelakoan.

Ijurko. «Gizon gizagaixoak, herri honen alde dena ematen ari dira eta

zuek kritikatu egiten dituzue». Horrelakoak esango zizkigutenaren beldurrez, isildu egiten ginen eta ez genion geure buruari haserretzeko baimenik ematen. Urteotan gauza hauek ezin konpartitu ahal izatea gogorra izan da.

Ortiz. Kontraesan horiek asumitu egin behar izan ditugu. Atzera begiratzen duzu eta zeure buruari galdetzen diozu nola egin dituzun zenbait gauza. Are gehiago, nola jarraitzen duzun, gaur ere, zenbait gauza egiten.

Ijurko. Nik inoiz jarri izan dut balantzan. Alderantziz izan balitz? Ni haien alboan egon naizen bezala, haiek egongo lirateke nire alboan? Nire bikotekideak erantzungo luke nik erantzun dudana gisan? Seme-alabak izango genituzkeen, ni izan banintz beste aldean zegoena? Egia zor, gizon zoragarriak izan dira ondoan izan ditugunak, daukaten guztia eman diote herri honi, baina denborarekin jabetzen zara kontrasesanez beteta gaudela gu ere. Feminista bezala galdera asko egiten dizkiot neure buruari.

Ortiz. Gauza asko geuretzako gorde ditugu. Isilean eta bakarrik pasa ditugu.

FEMINISMOAZ

Ijurko. Nik beti izan dut kontzientzia feminista, zehazki jakin gabe zer zen. Familia handi baten senide zaharrena izan naiz eta horrek zerikusia izango duela pentsatzen dut.

Ortiz. Nik ez dut kontzientzia hori izan berandu arte, egia esan. Nahikoa banuen egoerari erantzun beharrarekin. Ez nintzen asko arduratzen. Ez da kontrako jarrera nuenik, baina garai hartako gure borroketan ez geneukan feminismoa presente. Gero, urteak aurrera egin ahala kontzientzia piztu zitzaidan. Feminismora halabeharrek bultzatuta iritsi naizela esango nuke.

Ijurko. ORTko militante izan nintzen bere garaian eta han ere feminismoaren arloan mugitu nintzen. Gero maila sindikalean ere jardun izan dut. Enpresetan lan egiteak emakumeen lan eskubideen alde borroka egitea zekarren. Hori izan da gure bizitza.

Ijurko. ORTko militante izan nintzen bere garaian eta han ere feminismoaren arloan mugitu nintzen. Gero maila sindikalean ere jardun izan dut. Enpresetan lan egiteak emakumeen lan eskubideen alde borroka egitea zekarren. Hori izan da gure bizitza.

«Gauza asko
geuretzako
gorde ditugu.
Isilean eta baka-
rrik pasa ditugu»
MAITE ORTIZ



Emakumeen Mundu Martxa 2020an Euskal Herriko V. nazioarteko ekintzari hasiera ematen Irun-Hendaiako zubian. **ATARIA**

Ortiz. Eta bizitza horri esker egin dugu bidea feminis-
moraino. Pentsatzen dut asko ikasi dugula eta asko
ahaldundu garela kartzelari eskerrak.

Ijurko. Pello kartzelatik atera zenean ikusten nituen
Maite eta biak elkarrekin eta bikote hasiberria zirudi-
ten. Inbidia handia ematen zidaten.

Ortiz. Jende askok esan izan digu hori. Zorionez elkar
asko maite izan dugu eta oraindik ere elkar asko mai-
te dugu eta hori zorte izugarria da.

Ijurko. Guk ere bai, baina bolada txarrak ere pasa
izan ditugu. Unerik txarrenetan se-
narra hartzen nuen guztiaren erru-
dun. Zorionez gauzak denborarekin
baretzen joaten dira eta buelta
ematen diozu.

Ortiz. Denborak gauza asko senda-
tzen ditu eta bikoteetan ere horrela
gertatzen da. Elkarbizitza ez da erra-
za preso egon den pertsona batekin.

Urteetan mundutik erabat aparte bizi izan dira eta
kanpoko martxa zein den ez dakite. Kalera ateratzen
direnean nabari zaie hori. Denbora bat behar izaten
da egoera berrira egokitzeke. Nire kasuan, urte asko
eman nituen bakarrik, gero bikotea etortzerakoan
tarte bat behar izan nuen bizimodu berrira egiteko.

Ijurko. Guri ere pasa zaigu alabarekin, baina bide ba-
tez, berari eskerrak mundu berriak ere zabaldu zaiz-
kit. Neure buruan zalantza jartzea da feminismoare-
kin ikasi dudak gauzetako bat. Eta oraindik ere horre-
tan jarraitzen dut.

Gaur egun
eztabaida asko daude feminismoaren
barruan: prostituzioa dela, trans legea
dela... Alabarekin askotan diskutitzen
dut gai horien inguruan. Ni beti lagun-
tzeke eta ikasteko prest nago, baina
zenbait borroka dagoeneko ez ditut
hain nireak sentitzen. Atzetik datoze-
nak egin beharko dituzte.

«Ez genion geure
buruari
haserretzeko
baimenik
ematen»
GOTZONE IJURKO



Ortiz. Uste dut beste mentalitate bat dugula. Nik feminista gazteagoak entzuten ditut eta harrituta gertatzen naiz, gauzak zeinen ezberdin ulertzen dituzten ikusita. Baina niri izugarri gustatzen zait hori, zoratzen egoten naiz neska gazteagoekin. Hor ikusten dut neurre burua: entzuten eta alboan egoten. Begirada zabalteko balio dit mugimendu feministan parte hartzeak.

ONDORENAZ

Ijurko. Gertatutako guztiak utzi du bere ondorena. Gortzak badaki hori. Estres handia daukat. Estres traumatikoa dela esan didate eta pentsatzen dut tratamenduan jarri behar dudala. Askotan gertatzen zait hitz egin nahi eta ezina. Nik oraindik belarrian irratia dudala hartzen dut lo. Behar dut zerbait entzun lo hartzeko, bestela burua bueltaka ibiltzen zait.

Ortiz. Urte batzuk beharko ditugu gau-

zak baretu daitezen. Lehen ere esan dut, ni zorionez oso pertsona lasaia naizela eta ez dizkiodala buelta asko ematen. Adibidez, biktima hitzarekin ez naiz identifikatuta sentitzen. Askok jota, egoera jakin eta garai konkretu baten biktima izan naizela esan dezaket.

Ijurko. Aukeratu gabe, tokatu zaigun egoera baten biktima izan gara. Esate baterako dispartzioarena. Legezkoa ez den egoera bat tragatu behar izan dugu oso-osorik, guk nahi gabe.

Ortiz. Biktimak izango ginen, baina ez gara biktimoan erori. Egoera hori onartu dugu, kontziente

gara non eta zertarako gauden, eta aurre egin diogu. Uste dut hori dela gakoa.

Ijurko. Ez da erraza askotan bestearen larruan sartzea. Baina elkarbizitzan aurrera egin nahi badugu ezin diegu ondorengoei gorrotoa transmititu. Gorrotoarekin ez goaz inora.

«Hori guztia egin dugu borroka honetan parte aktibo sentitu garelako»

GOTZONE IJURKO



Esti Amenabarro Iraola

Pedagogian doktorea EHUn

Ama, kartzela puskatu behar da!

Kartzelak eraikitzeke apologia egiten da errazkeriaz, kartzelan inoiz egon gabekoek kartzelak eraikitzen dituzte eta haiek norbanakoak birgizarteratzeko abilezien inguruan aho bete hitz egiten dute; errazkeriaz eta sarri demagogia dosi handiarekin. Berriki ikusi dugu Zaballako esku aldatzearen antzerki hori guztia Euskadi Irratiko informatibo berezi eta guzti; baina bizitza denek ez dute berdin balio Zaballan (sei pertsona hil ziren 2020 urtean) ez eta Puerto Santa Marian ere.

Kartzelak, estatuek eraikitzen dituzten beste hainbat egitura hierarkiko bezala, gure gizarte eremuan dauden botere harremanak erreproduzitu eta zabaltzeko dispositibo antolatu eta punitiboak dira, zigorra eta mendekua dute oinarri. Pelikuletako iruditeriaz harago kartzela eremu ilun, zigortzaile eta menperatzailea da, dependentziak dituen pertsona are eta dependenteago bihurtzen den eremua, zaurgarria dena are eta zaurgarriago bihurtzeraino. Kartzelak genero arrakala modu gordinean erreproduzitu ez ezik, emakumeak modu berezi eta espezifikoa zigortzen ditu. Ez dago emakumeei zuzendutako espetxerik, gizonezkoentzat diren eremuetan kokatzen dira emakumeak, beti gutxiago eta zigor bikoitza pairatuaz.

Kartzela guztiak ez dira berdinak, pertsona eta espazioak berdinak ez diren moduan. Baina kartzela politikak estatu politikak dira; hau da, kartzelak kudeatzeko botere judizial, mediatiko zein politikoak bat egiten dute eta gizarte errealtatearen neurriko espetxeak eraikitzen dira. Espainiar espetxe politikak espai-

niar errealtate sozial eta kulturalaren argazkia eskaintzen du... Esadazu ze eskola eta kartzela eredu dituzun eta esango dizut zein gizarte argazkia duzun! Espazio itxi horietan gertatzen dena eta bertan garatzen diren praktikak, zio eta helburuak dituzte, eta hori aurrera eramaten duten pertsonak horretarako trebatuak dira (funtzionarioak, psikologoak, asistenteak, poliziak, zerbitzuburuak...).

Zigor politikak, arlo sozialean, bere horretan ez du inoiz delinkuentzia neutralizatzea lortu. Politikoan, berriz, dispertsio politikak, esaterako, ez ditu inoiz bere helburuak erdie-tsi. Hori bai, bieran min egitea zen helburua eta lortu dute. Hildakoak tartean. Noski hori errelatetik kanpo geratzen diren kontuak dira, bizitza denak ez dutelako berdin balio. ETA erakunde armatuak hamar urte bere jardura armatua utzi zuela berriki ospatu den garaio-tan espetxeko politika berezia aplikatzen zaie oraindik euskal preso politikoei.

Kartzelak ez dauka bihotzik (Jule Goikoe-txea). Kartzela giza kontenedore antolatua da. Gizakia apailatzeko espazio iluna izatetik uzteko ordea, beste kartzela politika bat behar da; pertsonak eta bizitzak erdigunean jarriko dituen politika sozial abangoardista baten altzoan eraiki beharko da. Pertsonak, subjektu politikoak direla onartzetik hasita, bizitza duin bat izateko eskubidea bermatuko dien trantsitu bat egiten lagunduz, bizitzarako bide bat, horretarako baliabideak eta prozesuak eraikiz. Giza kontenedoreak sortu baino giza aukerak sortzeko erakunde resozializadoreak behar ditugu.

Tatin tarta



**AINZANE
ARTOLA**



Gaurkoan goxo bat prestatuko dugu: tatin tarta. Frantziako errezeta bat da. Sagar tarta bat da berez, baina berezitasun bat badu: alderantziz egiten da honako pastela. Kondairak dio Loirako bailaran bizi ziren Tatin ahizpek hotel bat zutela, oraindik existitzen dena, eta halako batean labea izorratu zitzaiera edota akatsen bat izan omen zuten eta ore

azpian jarri beharrean eta sagarrak gainean, lehenengo sagarrak jarri omen zituzten eta ore ahaztuta edo, gainean jarrita sartu zutela labean. Sukaldari ezagun batek Parisera eraman zuen tarta eta han ezagun bilakatu zen.

Karmeloia preparatzen hasiko gara. Horretarako, azukre eta gurina neurri berdian beharko ditugu: 150 gr bakoitzetik, alegia. Hau da, gaurkoan karmelo goxo eta koipetsu bat egingo dugu. Horretarako, laberako ego-kia den zartagin edo kazuela bat erabiliko dugu. Izan ere, aurrena sutan jarriko dugu honako zartagin edo kazuela eta gero labean sartuko dugu.

Lehenik beraz, gurina urtzen utziko dugu, azukrea gehituko diogu eta egurrezko koilara batekin, suabe-suabe bueltak emango dizkiogu, sua suabe samar dugula. Azkenean, karmeloak toffee tonalitatea hartuko du, marroia, distiratsu-distiratsua. Honek adieraziko digu gure karmeloia prest dagoela.

Jarraian sagarrak gehituko ditugu. Hala ere, sagarrak gehitu aurretik, karmeloia apurtxo bat hozten utziko dugu, gure sagarrak erre ez daitezen. Bitartean, gure sagarrak prestatuko ditugu: moztuko ditugu, azal eta guzti. Sagar bakoitzetik zortzi puska aterako ditugu, bihotza kenduta. Kazolan kokatzen hasiko gara sagar horiek, era homogeen batean. Hau da, karmeloia azpian eta sagarra gainean geratzeko. Kokatuta ditugunean, sua martxan jarri eta egosten suabe-suabe 20 bat minutuz izango ditugu, ukitu gabe. Azkenik, sagarrak karmelo horretan busti egingo dira, kolore marroia goraino iritsiko da.

Hurrengo pausoa, sagarrak berriro hozten uztea izango da. Behin hotz daudenean, ore kokatuko diegu gaineretik. Labea 180 gradutan piztuko dugu eta kazola labean bertan sartuko dugu. Bertan 25 bat minutuz izango dugu, gure oreak urre kolore polit bat eduki arte. Labetik atera, hozten utzi eta buelta emango genioke gure tartari. Orduan, jateko prest izango genuke gure tatin tarta!

OSAGAIK

- 4-5 sagar.
- 150 gr gurin.
- 150 gr azukre.
- Brisa ore (200-250 gr).



ZUZENEKOA

Olaizola II.a

Agurreko partida

Tolosako Beotibar agurtu zuen astelehenean goizuetarrak. Partida amaieran berarekin hitz egin genuen.



SAIO LIBREA

Lehen saioa

Sokতিরaren historia

Haimar Malkorrek bere lehen irratsaioa egin zuen asteartean. Sokতিরaren bilakaera aztertu zuen.



PODCAST-A

Literatura

Nerea Loiola Pikaza

Epizentroa helduentzako lehen ipuin bildumaz hitz egin digu. Hilaren 23an, Zizurkilen izango da.



MAGAZINA

Bidaiari lotuta

Iosu Iztueta. Tolosarrari elkarrizketa egin genion, bere bidaien inguruan baina ikuspegi pertsonalago batetik. Iztueta sakon ezagutzeko aukera izan genuen beraz.



Saio guztiak hemen,
ataria.eus/irratia-n
entzungai

OSTIRALA

PASAHITZA

09:00. Eguraldiaren iragarpena Iker Ibarluzearen eskutik, eskualdeko berriak, eguneko elkarrizketa, helduen solasaldia...

PODCAST-A

15:00. *Kulturari Begira* Irati Saizarren eskutik. Asteburuko agenda.

ZEBRABIDEA

16:00. Magazina.

LARUNBATA

TRIKITIA

08:00. Trikiti musika goizean zehar.

LETREN ERREPUBLIKA

15:00. Literaturari buruzko saioa.

ENTZUTEKO JAIKOK

21:00. Musikari buruzko saioa.

IGANDEA

TRIKITIA

08:00. Trikiti musika.

HARI NAIZELA

15:00. Bertsolaritzari

buruzko saioa, Imanol Artola *felixekin*.

MUSIKA

16:00. Euskal musika saioaren tartea.

MUSIKASI

21:00. Musika klasikoari buruzko saioa.

ASTELEHENA

PASAHITZA

09:00-13:00. Eguraldia, agenda, zuzeneko konexioak, kantu eskaintzak, iritziaren tartea, eguneko gaiak eta astebu-

ruko albisteak.

BASERRITIK

15:00. Baserri munduari buruzko saioa.

ZEBRABIDEA

16:00-18:00. Arrosa sarearen magazina. Euskal Herriko aktualitateaz.

MUSIKA

18:00. Euskal musika saioaren tartea.

POSTALAK

20:00. Bidaiei buruzko saioa.

Glasgow / Ama lurra



**JOXE AGUSTIN
ARRIETA
EFIGUREN
ERRETIRODUNA**

Zalantzan egon naiz ze izenburu jarri: *Naturaren larrialdiak* edo *Ama lurra*. Une batzuetan, gure planeta urdinari begiratzen diogu eta nahiko ilun ikusten dugu; are gehiago, munduko panorama inoiz baino ilunagoa da. Hau diot Glasgow-en egin den Klima Krisiari buruzko munduko herrialde garrantzitsuenen bileragatik (urriaren 31tik azaroaren 12ra): nola kontrolatu berotze globala, berotegi-efektuko gasen isurketaren emaitza, eta nola birbideratu munduko ekonomia.

Azken batean, horrek guztiak injustizia bikoitza eragiten du: ekologikoa, ekosistema osoak suntsitzean (zuhaitzen eraitsia, energia fosilaren gehiegizko erabilera, basamortutzea gero eta handiagoa, etab.); eta soziala, mundu mailan pobrezia eta miseria areagotuz.

Badirudi hamarkada bat baino ez dugula CO₂ isuriak gutxienez erdira murrizteko. Bestela 1,5 gradu zentigraduko berotzea lortuko dugu, eta horrek naturaren suntsipen larria ekarriko luke, milioika emigratu klimatiko, haien nazioak beroaren eraginez bizitzeko eta ekoizteko ez bailirateke gauza izango; gainera, egungo COVID-19a baino okerragoa den birus bat ager liteke.

Zalantzarik gabe, funtsezkoa da natura salbatzea eta, horrekin batera, gu geu ere bai. Uste dut funtsezkoa dela domeinuaren edo nagusi izatearen paradigmatik (naturarekin loturarik ez duen eta bere burua haren jabe eta menperatzaile-tzat hartzen duen gizakia) gizatasunaren paradigmara (Giza Eskubideena) igarotzea, gizakia naturaren parte eta gizakien eta naturako gainerako izaki guztien anaia eta arreba sentituz. Edo kosmosean emandako ondasunez abusatzeagatik zulora joaten ez bagara. Eta horrela gertatzen da, lurra gaizki tratatzen badugu, geure buruari kalte egiten diogula. Ez al da horrela? Ze gogorra bizi nahi eta ezin bizi. Pausorik pauso sendo aurrera, ez dezagula itxaropena galdu. Inoiz ez izatea baino berandu izatea hobe.

**Une batzuetan,
gure planeta
urdinari
begiratzen
diogu eta
nahiko ilun
ikusten dugu;
are gehiago,
munduko
panorama
inoiz baino
ilunagoa da**



**MAIDER
BARANDIARAN**
NITIK GURA

Hizketalaguna

Izena da gutxienekoa. Mintzalagun, Berbalagun, Solaskide, Gurasolagun... Egitasmoa praktikan jartzen den txoko edo bazterreko hizkuntza ohiturek ematen diotena hartzen du. Lekuan lekukoa, ondorioz, doinu askotarikoak ditu izendapenak. Aurten izen berriarekin dator deialdia. Aurten... MintzaPoza! dugu.

Aurtengoa bereziki bizi, garrantzitsu, eta gogotsu dator. Azken bi urteetan ezinezkoa izan baita gure

gauden Bidelagun izateak. MintzaPoza, dakiguna partekatzeak, euskararen alde gure alea jartzen dugula sentitzeak.

Hasieran, ez genuen elkarren berri. Eta bitxia da hori gurea bezalako herri txikian. Guztiok ezagutzen dugulakoan bizi garen arren, guk ez genuen elkarren arrastorik ere. Arraioa! Nork esan behar zigun guri, hasi berritan, bi zizurkildar ezezagun halako Hizketalagun egingo ginenik. Hain lotsati elkartzen ginen. Hanka puntetan, nola bata zein bestea hanka sartze-ko beldurrez.

Gure kasuan, plazara atera nahi izaten dugu. Ardotxo zuria kopan, Atxulondoko terrazara, bistara. Baina baita sartu ere. Sartu nora? Gero eta entzungorrago den herritarren belarrietara sartu nahi genuke gure hizketa-hotsa.

jarduna bere horretan burutzea. Baina, noski, betikorra itzultzeko irrikaz gaude: taldekideekin berriz elkartzeko eta MintzaPoza elkarrekin praktikatzeko. Hori xe baita, finean, egitasmoen oinarria: MintzaPoza.

Finean, lagunarekin euskaraz aritzeko astean ordubetez biltzea. Eta Lurdes eta biok asteazkenero egiten dugun eran, 6.800 lagun astero-astero bildu izan gara kafe bat hartuz, nahiz pasiora joanez euskaraz aritzeko.

Gure kasuan, plazara atera nahi izaten dugu. Ardotxo zuria kopan, Atxulondoko terrazara, bistara. Baina baita sartu ere. Sartu nora? Gero eta entzungorrago den herritarren belarrietara sartu nahi genuke gure hizketa-hotsa.

Lurdesi eta bioi MintzaPoza sortzen digu astero elkartzeak, euskaraz lasai eta eroso aritzeko aukera izateak, akatsak egiteko beldur gabe edo euskara praktikatu nahi dugunokin astero elkartzeko prest

Hala, aurreko astean, euskaraz irakurtzeko utzi nion liburuen egileak *Hili* argitaratu berri duela iragarri berri dit aste honetan lagunak. Hizkika, H-I-L-L-I idazten dela azaldu dit, H-an azpimarra egin ez.

Eta nahiz eta niri azken I-ak jo didan txirrina, antza, euskaraz ikusteko aholkatzeko eskatu zidan telebista-saioan entzun du. Eta orain berak jarri dit amua. Badut hurrengo otorduaren prestaketan sukaldean jaten emango didan solasaldia.

Finean, ahoz aho pasatako txikikeriekin osatzen dugu gure sarea. Eta, horrela, josi eta josi, Zizurkilgo euskal hiztunona ere bai. Orain, astez asteko gure kontu txikiek gogoeta handien inbidiarik ez duten honetan, hizketako elkarri txanda eman ezinik dihardugu. Hitzordua hegan joaten da. Baina baita berria arrapaladan etorri ere.

Hara hor gure bizipoza. Mintzapoza.



**JOKIN
SOROZABAL**

Gure klima aldaketa

Doinua Gabon denori ongi etorri

Lehengo batean koadrilako
bazkaria nuen eta
jan edanean kristonak gaude
baina makinak erreta
hango kadera hango menisko
ajea jira ta buelta
abiadura galduta dabil
gure haizeen beleta
hau izango da guri etorri
zaigun klima aldaketa.



AGENDA

OSTIRALA AZAROAK 12

ALKIZA

SANMARTINAK

17:00. Haur jolasak, ginkana (bizikletan), musika dantza... Frontoian.

Ondoren. Bertaratzen diren haur zein helduentzako txokolatada eta pintxoak guraso elkartearen kontura, frontoian.

21:00. Herri afaria, Ostatu jate-txean.

Ondoren. Kontzertu akustikoa izango da Iker Laurona eta Leire Berasaluzeren eskutik.

AMASA-VILLABONA

SANMARTINAK

17:00-19:00. Puzgarriak, frontoian.

Ondoren. Txokolate beroa.

17:30. Dudik-P taldearen kontzertua.

19:30. Amasako XVIV. Bakailu Lehiaketa, Iturrigoxon.

23:30. Distopia elektrotzaranga.

AMEZKETA

HILABETE KULTURALA

18:30. Eskualdean tokiko elikadura bultzatzeko sortu den Lurtaro taldearen aurkezpena egingo dute.

ANOETA

KONTZERTUA

22:00. Herdoil eta Black Hobbit taldeen kontzertua Anoetako Gaztetxean. Sarrerak 5 euroko kostua du. GKS antolatuta.

IBARRA

SAIOA

18:00. Atzerriko ikasketen homologazioa. Kultur etxean.

A25. ERAKUSKETA

16:30-20:00. *Egungo kultura progresista. Emakumeon ahaldun-*



tzea ala indarkeriaren normalizazioa? erakusketa, plazan. Itaiak antolatuta.

IKAZTEGIETA

IKASTAROA

18:30. Oinarrizko lehen laguntza ikastaroa. Hizlaria Maider Gonzalez herritarra eta Gurutze Gorriako kidea. Erabilera anitzeko gelan.

TOLOSA

AURKEZPEN MUSIKATUA

18:30. *Gogoan dut* liburu aurkezpen musikatua. Aritz Galarragaren hitzak eta Ibonrg-ren musikarekin. Kultur etxean.

ERAKUSKETA INAUGURAZIOA

19:00. Txaro Marañon eta Charo Cimas. Planeta lorategia, planeta infernua erakusketa, Aranburun.

ANTZERKIA

20:30. Vaiven antzerki taldearen *Yo, la peor de todas* antzezlan. Leidorren.

KONTZERTUA

22:00. Larru Beltzak eta Bizarro taldeak Bonberenean izango dira. Sarrerak 8 euroko kostua du.

IRURA

ARGAZKIA

18:00-21:00. Azoaren 20an Bilbon La Casillan izango den Manifestazio Nazionalari babesa adierazteko argazkia ateratzeko aukera, plazan.

ZIZURKIL

MUSIKA ZUZENEAN

Zigor Lampre DJa Atxulondo tabernako terrazan.

LARUNBATA AZAROAK 13

ADUNA

MENDI DUATLOIA

15:00. III. Adunako Mendi Duatloia.

ALKIZA

SANMARTINAK

17:30. Ianire Aranzaberen kantaldia.

Ondoren. Musika Bassagain soinu sistemaren eskutik.

AMASA-VILLABONA

SANMARTINAK

11:00. Umekrosa (6. maila arteko umeentzat).

12:00. Herriko proba.

18:30. Bertso saioa, elizan. Bertsolariak: Unai Mendizabal, Onintza Enbeita, Sebastian Lizaso eta Oihana Iguaran. Gai-jartzailea: Imanol Artola, *felix*.

ANOETA

ARGAZKIA

17:00. Azoaren 20an Bilbon La Casillan izango den Manifestazio Nazionalari babesa adierazteko argazkia ateratzeko aukera izanog da, plazan.

BERASTEGI

BAZKARI HERRIKOIA

12:30. Gaztaina bazkari herrikoia, Urepele elkartearen eskutik.

12:30. Bertso triki poteoa, herrian zehar.

14:00. Bazkari herrikoia. Bazkal ondoren. Bertso saioa Iñigo Gorrostarzu *Etxorde* eta Haritz Mujikaren eskutik.

Iluntzean. Luncha eta Dja.

IBARRA

A25. PROIEKZIOA ETA KAFE

TERTULIA

17:00. *Oh gu hemen!* lehen saioaren proiektzioa eta kafe tertulia. Itaiak antolatuta, Gaztetxean.

IRURA

FESTA EGUNA

KKJJ Gazte Alaiak Elkartearen eguna. Egun guztiko jaia.

TOLOSA

JARDUNALDIAK

Gor komunitatearen sentsibilizazio XVIII. astea.

09:00. Isabel de las Heras (Granada, Espainia) *Oreja voladora*ren ilustratzailea. Helduentzako komiki tailerra Tolosako kultur etxean izango da.

11:00. Isabel de las Heras (Granada, espainia) *Oreja voladora*ren ilustratzailea. Ume gorrentzat komiki tailerra, Tolosako kultur etxean.

18:00. Hitzaldia. Aleluya Peña psikologoa (Madril, Espainia). *Las emociones del post-COVID-19*.

MEZUAK ETA KONTZENTRAZIOA

11:00. Tolosaldea Sahararekin elkarrekin deituta, saharar kanpamenduetara bidaltzeko mezuak idazteko aukera.

13:00. Kontzentrazioa, Trianguloa plazan.

JABETZE ESKOLA

17:00. Emakumeentzako jabetze eskola. *Migratzen dugunean atzean uzten duguna*. Norma Vazquez Garcia prestatzailearekin. Gaztelaniaz. Doan (aurrez izena eman behar da). Kultur etxean.

PAILAZOAK

18:00. *Bart non ote nintzen ni?*

ikuskizuna Txirri, Mirri eta Txiribitonekin. Bonutik kanpoko ekitaldia da. Leidorren.

TITERESZENA

18:30. Italiako Di Filippo konpainiak *Hari batetik zintzilik* ikuskitun familiarra eskainiko du Topic-en.

KONTZERTUA

22:00. Ayveeren kontzertua Bonberenean izango da. Sarreraren kostua zortzi eurokoa da.

ZIZURKIL

A25. ERAKUSKETA

18:00-20:00. *Egungo kultura progresista. Emakumeon ahalduntzea ala indarkeriaren normalizazioa?* erakusketa, Joxe Arregi plazan. Itaiak antolatuta.

IGANDEA

AZAROAK 14

AMASA-VILLABONA

AIZKARDI ARGAZKI RALLYA

09:00. Izen-ematea dohainik,





egunean bertan. Antolakuntzak esandako mendi ibilbide batean zehar ateratako argazkiak sartuko dira lehiaketan. Bederatzi kilometro burutu beharko dira, lau orduko epean. Aizkardi aretotik abiatuko dira (Larrea auzoa, 18B).

SANMARTINAK

18:00. Herri kirolak. Amasarrak vs. Berroeta-Aniz.

Ondoren. Martina sorginari agurra.

ANOETA

KONTZERTUA

18:30. Trigger taldearen kontzertua, Gaztetxean. Poliedro Vol. 1. Langileek hiru euro ordainduko dituzte eta langabeek euro bat.

IBARRA

UDAZKEN EGITARUA

18:30. AMAK taldearen kontzertua, Belabieta kiroldegian.

TOLOSALDEA

BAZKARIAK

Bertako eta atzeritik etorritako familiak bazkaltzeko batuko ditu Bizilagunak egitasmoak. **Irakurri erreportajea 26-29n orrietan.*

ASTELEHENA AZAROAK 15

ADUNA

IPUIN KONTAKETA

17:30. *Hari batetik zintzilik* ipuin kontaketa. Di Filippo Marionette Italiako taldearen ikuskizuna. Elizan.

AMASA-VILLABONA

GURETZAKO GUNEA

17:00. Guretzako gunea. Jatorri anitzeko emakumeen bilgune. Guretzako jatorri anitzeko emakumeak biltzen diren gunea bat da, elkarrengandik ikastea helburu duena. Subijana etxean elakartuko dira.

TOLOSA

JABETZE ESKOLA

15:30. Emakumeentzako jabetze eskola. *Emakume margolariak itzalean: Piztu ditzagun argiak!* Leire Markinez Calvo prestatzaileekin. Euskaraz. Matrikulak bost euroko kostua du.

ODOL EMATEA

16:30. Gipuzkoako Odol Emaileak alkarteak antolatuta, odol ematea. Aurretik txanda hartzea beharrezkoa da, telefonoz, odol emaleen elkarteak: 900 303 404. Kultur etxeko Topagunean egingo dira odol emateak.

ZINEMA



LA FAMILIA ADDAMS 2

Larunbata eta igandea (17:00).

Amasa-Villabona, Gurea.

Igandea (17:00).

Tolosa, Leidor.



EL ÚLTIMO DUELO

Larunbata (19:30 eta 22:00) eta astlehena (20:30).

Amasa-Villabona, Gurea.



LAS LEYES DE LA FRONTERA

Larunbata (20:15), igandea eta astlehena (19:00)

Tolosa, Leidor.

EZAGUTZEAK AURREIRITZIAK UXATZEN DITU

lazko etenaren ondoren, aurten berriro egingo dira Bizilagunak egitasmoko bazkariak. Tolosaldean guztira zortzi familiek eman dute izena, eta lau bazkaritan elkartuko dira igande honetan.

Imanol Garcia Landa

Igande honetan, azaroak 14, Bizilagunak egitasmoa gauzatuko da beste behin. SOS Arrazakeriak elkarteak antolatuta, 2012an egin zen lehendabizi, eta jatorri atzerritarra duen familia bat bertako familia batekin bazkari batean elkartzea da proposamena. Iaz ez zen posible izan egitea, baina aurten antolatzaileek «gogotsu» ekin zioten presaketari. Jone Urionaguena SOS Arrazakeriak elkarteko teknikariak azaldu duenez, aurten bi aukera proposatu dituzte: «COVID-19aren gai honekin, baliteke familiaren bat kezkatuta egotea etxera jendea bazkaltzera joateagatik, eta erabaki dugu parke edo gune berdeetan ere bazkariak egitea, piknik moduan. Aurreko azaroan pandemiak erakutsi zigun kailean sozializatu daitekeela, eta probatu egingo dugu».

Eskualdean Tolosaldea Garatzeneko Aniztasun Sailak koordinatzen du egitasmoa. Zortzi familiek eman dute izena aurten, eta, beraz, lau bazkari egingo dira, eta denak etxeetan burutuko dira. Urionaguenak familia hitza erabiltzerakoan, zehaztasun bat egin du: «Familia bezala hartzen dugu beraien arteko harremana dagoeneko eraikia eta sortua dagoen pertsona taldeari. Familia izan daiteke ez bakarrik guraso eta seme-alabez osatutakoa, baita kuadrilla edo kirol taldeko kideak ere».

Egitasmoaren helburua bizilagunak elkar ezagutzea da, horri jatorria erantsita; hau da, bizilagun horren jatorria bertakoa den edo atzerritik etorritako bizilaguna den. «Pandemiak zerbait erakutsi badigu elkarren beharra dugula da, elkar zaintzeko eta elkarrekin egoteko beharra. Pandemiak agerian utzi gutxinaka isolatzen joan garela, bai gure gertuko inguru sozialarekin eta baita bizilagunak ez ditugulako ezagutzen, ez dagoelako harremanik», esan du Urionaguenak. «Herrietan jendearen artean harreman gehiago dago, baina hirietan gero eta anonimotasun handiagoa daukagu, baita bizilagunen artean ere. Beraz, pentsa zer gertatzen den atzerriko jatorria duen bizilaguna bazara, oraindik eta barrera gehiago daude».

Bizilaguna jatorri atzerritarrekoa bada, zurrumurruak sortzen dituzten aurreiritziek eta estereotipoek urruntasun hori gehiago mantentzen dutela gaineratu du Urionaguenak. «Bazkari honen helburua da, beraz, aitzakia guzti horiekin apurtzea, eta mahai baten bueltan jendea elkar ezagutzera animatzea».

Elkar ezagutzearen ondorio positiboak

Hainbat ebaluazio egin dituzte urteetan zehar, eta baita ikerketa zientifikoak ere. Horiek erakutsi dute egitasmoak ondorio zuzen bat duela pertsonen pertzepzioan eta irekitasunean. Ikerketa batean, adibi-



2019ko urtean, Adunan egin ziren bost bazkarietako parte hartzaileak udaletxe aurrean elkartu ziren. **ATARIA**

dez, galdeketa bat banatu zen bazkaria egin aurretik, jakiteko zer aurreiritzi eta irekitasun zeuden. Gero galdetegi bera pasa zen bazkariaren egunean, eta hor ikusi zen irekitasuna eta dibertsitatearekiko abegikortasuna areagotzen zela, eta aurreiritzi eta este-reotipo maila jaitsi egiten zela. Gerora, bazkariaren egunetik denbora bat pasa ondoren, berriro ere galdeketa berdina pasa zitzaien parte hartzaileei. Eta ikusi zen kontaktua izan eta berehala jendearen irekitasunean eta gogoetan efektu oso positiboa dutela bazkari hauek, hilabeteak pasatzean, kontuan izanik egunerokotasunean zurrumurruak nonahi entzuten direla, irekitasun maila hori zertxobait jaisten zela, eta aurreiritzizko jarrerak pixka bat igotzen zirela. Hori bai, beti ere bazkaria egin aurreko mailatik behera. «Horrek erakusten du bazkariaren efektuak irauten duela», azaldu du Urionaguenak.

Bestalde, Urionaguenak gaineratu duenez, bazkariaren ondoren, parte hartzaileen-gandik eta dinamizatzaileen-gandik jasotzen dituzten iritziek erakusten dute «oso sentazio positiboak dituztela, denak oso pozik daude parte

hartu izanaz. Egia esan, oso esperientzia eta feedback politak jasotzen ditugu». Bazkariaren elkartzen diren familiek gerora ere harremana mantentzea izaten da egitasmoaren asmoetako bat. «Ideia da zure auzoko pertsonak ezagutzea eta gerora pertsona horiei izen-abizenak jartzea, abegikortasun eta gertutasun bat izatea, eta harreman horrek jarraipena izatea».

Egitasmoa egin den aurreko urteetan, antolatzaileek Gipuzkoa Solidarioa antolatu izan dute, baina aurtan ez dute egingo, COVID-19a dela eta. «Nola-bait parte hartzaileei itzulketa moduko bat egitea zen topaketa hori», esan du Urionaguenak. «Parte hartzaileek norbere bazkariaren bizipena izaten dute, baina egun berean Gipuzkoa osoan beste hainbat bazkari egiten dira. Bolumen hori ikusteko edo parte hartu den proiektuaren dimentsioa ikus-

teko, antolatzen da Gipuzkoa Solidarioa». Hori horrela, parte hartzaileei nolabaiteko itzulketa egin nahi diete antolatzaileek, eta ziurrenik bideo bat osatuko dute igandean izango diren bizipen guztiekin.

«Pandemiak zerbait erakutsi badigu, elkarren beharra dugula da, elkar zaintzeko eta elkarrekin egoteko beharra»

JONE URIONAGUENA

«Egitasmo hauengatik ez balitz, ez litzateke horrelako kultura arteko trukerik izango»

PAOLA NEYRA

BIZILAGUNAK-EKO
DINAMIZATZAILEA

Paola Neyra, eskuinean, orain bi urteko Bizilagunak egitasmoko bazkarian.

ATARIA



I. García Landa

Bizilagunak egitasmoko aurreko edizioan, 2019koan, parte hartu zuen Paola Neyrak dinamizatzaile moduan, eta aurtengoan errepikatu egingo du. Jatorriz perutarra, 17 urte daramatza Tolosan bizitzen.

Orain bi urteko topaketa nola bizitu zenuen?

Esperientzia oso ona izan zen, asko gustatu zitzaidan bi familiak ezagutzea, eta oso aberasgarria izan zen. Bi aldeentzako oso aberatsa zela ikusi nuen, bai bertako familiarentzat zein migratu duenarentzat. Egitasmo hauengatik ez balitz, ez litzateke horrelako kultura arteko trukerik izango. Nire bizipenetatik esan dezaket euskal komunitatea zertxobait itxia delako, oso lotua bere kulturari; hori oso ederra da baina hizkuntzaren gaiak barrera bat sortu dezake. Beraz, herrietan batez ere euskaldunek euren artean harremantzeko joera handiagoa dute. Bestetik, migratu dutenentzat ere baliotsua da egitasmoa. Isterakoan, kokatzen saiatzen zara, eta migratzen duten pertsonak normalean oso zentratuta daude lanarekin, eta aisia oso bigarren mailan dute.

Bazkari baten bueltan izateak zer suposatzen du?

Hau guztia bazkariaren inguruan izatea oso polita

da, gastronomiaren bidez beste kultur trukaketa bat sortzen delako. Horren bitartez gozatu egiten dugu, dastatu, eta hortik abiatuta errazagoa da solasaldi bat sortzea, istorioak kontatzea, badakigulako gutxienez bi orduz mahai baten inguruan disfrutatu egingo dugula. Hori gertatu zen ni elkartu nintzen bi bikoteekin. Iruran elkartu ginen eta bikote bat Nika-raguakoa zen eta bestea Anoetakoa. Eta oso ederra izan zen, gauza asko zituztelako komunean: musika, aisia... Oso aberatsa izan zen.

Dinamizatzaile moduan zer egiten duzu?

Familiekin harremanetan jartzen gara, eta kontaktu hori telefonoz egin badaiteke ere, nik aurrez aurre ezagutu nahi izan nituen, bazkarian elkartu aurretik. Azaldu nien nola izango zen dinamika, eta menua zertxobait koordinatu nuen, batez ere jakiak ez errepikatzeko, jakiren bati intolerantziaren bat ote zegoen baieztatu nuen... Gero, bazkarian, ikusiko bagenu ez dela solasaldirik sortzen-edo, saiatu gaitezke horretan, baina gure kasuan ez zen horrelakorik behar izan, ni beste gonbidatu bat bezala sentitu nintzen. Bi bikoteak oso irekiak ziren, oso prest zeuden.

«Aurreiritziak bertan behera geratzen dira mahai baten inguruan elkartzean»

BEATRIZ EGUSKITZA

BIZILAGUNAK-EKO
PARTE HARTZAILEA

I. García Landa

Bilbon jaioa, ia 30 urte daramatza bizitzen Adunan Beatriz Eguskitzak. Azken bost alditan parte hartu du Bizilagunak egitasmoan, baina aurtengoan, «pena handiz», ezin izango du errepikatu.

Nola hasi zinen parte hartzen egitasmoan?

Egunkarian ikusi nuen proiektuaren berri, oso interesgarria iruditu zitzaidan eta animatu nintzen parte hartzera, nire ahizparen familiakoekin batera. Oso ondo atera zenez, eta oso esperientzia aberasgarria iruditu zitzaidanez, jarraitu genuen. Etxera etortzerakoan, pertsona horiek modu batera ikusten dituzu, baina alde egiten dutenean beste era batera ikusten dituzu. Hori nabarmenduko nuke bereziki. Denok ditugu aurreiritziak eta horiek denak bertan behera geratzen dira mahai baten inguruan elkartzeko garenean, eta bakoitzak bere bizitza eta batez ere familia horiek izan dituzten zailtasunak kontatzen dituztenean.

Bizilagunak egitasmoaren bitartez, pertsona migranteei buruz ditugun aurreiritzien kontra egitea da helburuetako bat, aurreiritziak denok izan ditzakegulako.

Bai, ez gara kontziente, baina denok ditugu aurreiritziak. Jatorriaren arabera aurreiritziak ditugu, eta



Beatriz Eguskitza, ezkerrean eta behean, 2016ko Bizilagunak egitasmoa bazkarian parte hartu zutenekin. **ATARIA**

egitasmo hauekin kontzientzia hartzen duzu eta konturatzen zara denok oso antzekoak garela, eta konturatzen zara hona migratu duten pertsona horien bizitzak oso gogorrek direla eta jabetzen zara hona etortzeko hartu duten erabakiaz, hemen zer zailtasun dituzten ikusten duzu. Alde horretatik oso interesgarria da. Hasieran, elkartzeko garenean, pixka bat lotsatuta egoten gara guztiok, baina konfiantza hartzen zoazenean, denok hitz egiten dugu eta bakoitzak bere istorioa kontatzen du eta oso interesgarria da.

Bost topaketa egin dituzu, eta, beraz, bost migrazio istorio ezagutu.

Bai, hala da. Aurreiritziak baino ez dira guri lana kentzera eta gure zerbitzuak erabiltzera etortzen direla, gero konturatzen zara nolako bizitza izan duen bakoitzak bere herrialdean, eta hona etortzeko erabakia hartzen dutenean oso erabaki gogorra dela: dena atzean uztea, familia, lagunak, etxea, daukaten guztia. Eta arriskua hartzen dutela jakin gabe hemen zer aurkituko duten. Hemen bizitza berri bat hasten dute, zailtasun pila batekin. Nire ustez meritu handia dute, eta hori dena baloratu behar dugu.

Jendeari, beraz, egitasmoan parte hartzeko gonbita egingo zenioke.

Dudarik gabe. Batzuetan beldur pixka bat ematen dizu ezagutzen ez duzun norbait zure etxean sartzea, baina lehenengo bazkariarekin beldur guztiak galduko dituzu. Normalean oso ondo ateratzen dira bazkari guztiak, eta jendea oso gustura geratzen da.



IKER IBARLUZEA
EGURALDI ADITUA

EGU RAL DIA

OSTIRALA

Giro motelagoa izango dugu.

Egun osoan zehar behe-hodeiak nagusi izango dira, batez ere, goizean eta arratsalde erditik aurrera, non ez den baztertzen euri-langar modura zer edo zer bustitzea, gehienbat azken orduetan. Hala ere, oso euri gutxi botako du. Egunekeo erdiko orduetan giro atseginagoa izango da. Haizeak mendebal, ipar-mendebaldetik joko du eta tenperatura antzeko balioetan mugituko da, 15-16 gradutan joaz goia.

LARUNBATA

Eguraldi motelak jarraipena izango du. Goizean goizetik hasita zeruan hodei asko ikusiko dugu. Goizean eta arratsaldeko lehen orduak arte giro ateria izango dugu eta uneren batean ostarteren bat edo beste izango da. Arratsaldeko lehen orduetik aurrera ordea, hodeiak ugartu eta azken orduetan euri-langar modura zaparradaren bat edo beste izango da. Haizeak goizean mendebaldetik joko du, arratsaldean aldez ipar-mendebaldetik. Tenperatura antzeko balioetan mugituko da, 15-16 gradutan joaz goia.

IGANDEA

Giro kaxkarra izango dugu. Goizean bertan zerua erabat estalirik agertuko da eta euri kontu batzuk izango ditugu. Goizean euri zaparradak ahulak izango dira orokorrean. Eguerditik aurrera ordea zaparradek indar gehiago hartuko dute eta tarteka mardul xamar botako du, egunaren bigarren zatia ezatseginagoa izango delarik. Ipar, ipar-mendebaldeko haizeak zakar xamar joko du eta tenperatura jaitsi egingo da, 12-13 gradutik nekez pasako delarik.

ZERBITZUAK

ZORION AGURRAK

*Urtebetzeak, urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...*

943 65 56 95

ataria@ataria.eus

San Esteban 20
Tolosa

Prezioa

15,50€
45€
51€

Atarikideek

12€
33€
38€

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

FARMAZIAK

AZAROAK 12, OSTIRALA
IBARRA

Egunekoa. Leyre Lejeune Maset.
Euskal Herria, 24.
943 67 32 74.

AZAROAK 13, LARUNBATA
TOLOSA

Egunekoa. Cecilia Bronte Posada.
Korroo kalea, 20. 943 67 60 13.

AZAROAK 14, IGANDEA
TOLOSA

Egunekoa. Maria Jose Santamaria.
Nafarroa etorbidea, 2.
943 65 46 10.

AZAROAK 15, ASTELEHENA
TOLOSA

Egunekoa. Eurne Bengoetxea.
Kale Nagusia, 7.
943 67 06 48.

**EGUNERO GAUEKO GUARDIAKO
FARMAZIA: TOLOSA.**
LURDES AZPIROZ GALARZA.
LARRAMENDI, 6. 943 67 51 18.



saridunak



Atarikideentzat **bi saski** ditugu

- Joxema Tolosa Lopetegi (Tolosa)
- Rosarito Urretabizkaia Gorostegi (Alegia)

Errigorako bi
saski zuri
zozkatzen dira

ATARIA jarriko da harremanetan

**IRAGARRI HEMEN
ETA ESKUALDEAK
BUELTATUKO DIZU**



JARRI ZURE IRAGARKIA ATARIAN
publi@ataria.eus / 661 678 818

* Atarikideentzat eskaintza bereziak

* Itzulpena eta diseinua doan



ISASTEGI

~ SAGARDOTEGIA ~

ALDABA TXIKI AUZOA~TOLOSA (GIPUZKOA)
TEL: 943 65 29 64 ISASTEGI.COM



SHUYANA

AZALEAN

**GUSTATUKO
LITZAIZUKE
ONDOEN
EMATEN DIZUN
MAKILLAJEA
ERABILTZEN
IKASTEA?**



Azaroako eta abenduko larunbat goizetan, Shuyana Azalean zentroan, 30 minutuko aholkularitza-saio bat eskainiko dizugu, doan eta zure neurri-neurrira.

Gure ezaugarri bakoitza maitasun eta kontu handiz tratatzean dago aldea. Eta produktuak ezaugarri horiek nabarmentzeko nola erabili erakutsiko dizugu. Animatuko al zara?
Aurretik hitzordua eskatzea komeni da.

Gainera, larunbat arratsaldetan, Beauty Party saioak egiten hasiko gara! Plan bikaina da, ondo pasatzeaz gain, makillatzeko trikimailu pila bat ikasiko dituzu-eta.

Edozein momentutan gure dendatik pasa zaitezke udazken-neguko makillaje joera berriak ezagutzeko: kolore beroak, eleganteak eta ezpainetako mate hidratatzaileak ezpainak suabe-suabe mantentzeko.

Eta laster Artdecok sortutako Green Couture kolore sorta berria, eko jasangarriak.

www.shuyana.com - 943 675 489 korreo 6 - Tolosa
Tolosa&Co txartelarekin ordaindu hiru hilabetetan interesik gabe